

4. IKASGAIA: ESKUBIDEEN ETA ASKATASUNENEN ETENA

I.Eskubideen eta askatasunenen etena konstituzioaren bermetzat hartuta

Konstituzioaren helburua giza harremanak egoera normalean kontrolatzea da, baina, batzuetan egoera normal hori arriskuan jartzen dituen gauzak gertatzen dira. Egoera **ez-ohiko horiek kontrolatzeko, konstituzioa defendatzeko, salbuespen zuzenbidea zehazten da** konstituzio gehienetan. Krisialdiei aurre egiteko gehien erabiltzen diren baliabideak; **aginte betearazlearen ahalmena gehitzea eta giza eskubideak murriztea** da.

Salbuespen zuzenbideak zuzenbide-estatuaren ezaugarriak mantendu behar ditu, hala nola:

- 1) Estatuko agintariak **ez dute erantzukizuna galtzen**, bereziki, Gobernuak.
- 2) Salbuespen-zuzenbidea **iragankorra** da, hots, krisialdiak irauten duen bitartean baino ezin daiteke erabili.
- 3) Salbuespen-zuzenbideak **helburu bat du: egoera normalera itzultzea**.
- 4) Salbuespenerako **ahalmenak mugatuak** dira, aparteko ahalmenak lege-antolamenduan zehazturik daudenak baino ez dira izango.
- 5) Salbuespenerako **ahalmenen erabilerak behar den heinekoa** izan behar du; aurrean dagoen krisialdiaren izaerara moldatu behar da.
- 6) **Heinekotasuna lurralde-esparruan** ere gorde behar da.
- 7) Salbuespen-zuzenbidea **era murrizgarrian interpretatu** behar da. *Giza Eskubide eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena* eta *Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmenean* xedatzen diren betebeharrak errespetatuko dira. Adibidez, tortura eta tratu txarrak debekatuta daude eta legezkoatasun printzipioa bermatu behar da.

Adierazitako egoera bat aldarrikatzen bada, **nahitaezkoa da Europako Kontseiluaren Idazkaritza Orokorriari jakinaraztea**.

SALBUESPEN EGOERA ESPAINIAR KONSTITUZIOAN

Espainiar Konstituzioaren 55.1. artikuluan egoera ezberdinetan eten daitezkeen eskubideak zehazten dira eta 116.1. artikuluan hiru egoeren mugak eta eskumenak arautzen dira. 116.artikuluan jasotzen dira egoera horietan zuzenbide estatuaren mugak; Gobernuaren erantzukizuna segurtatzeko baliabideak eta Konstituzioaren beraren iraupena bermatzeko debekuak ezartzen dira.

II Alarma-egoera

a) Baldintzak

4/1981 LOan aurreikusten dira alarma-egoera aldarrikatzea bidezko izan daitezkeen kasuak:

- **Hondamendi, ezbehar edo zorigaitz pertsonalak** daudenean;
- **Osasun-krisiak** daudenean;
- Funtsezko herri-zerbitzuak bete ezinik geratzen direnean **gutxienezko zerbitzuak bermatzen ez** dituzten grebengatik;
- **Premia gorriko produktuen hornidurarik eza** dagoenean eta abar.

b) Jardunbidea

EKren 116. 2 artikuluan zehazten da, Alarma-egoera **Gobernuak adieraziko** du, bere kabuz edo autonomia-erkidego bateko lehendakariaren ekimenari jarraituz. **Ministroen Kontseiluan onarturiko dekretuaren bitartez; gehienez hamabost egunerako** izango da, eta Diputatuen Kongresuari, horretarako berehala

bilduko den horri, berri emango dio. Kongresuaren baimenik gabe ezin luza daiteke epea. Dekretuan, adierazpenaren ondorioetarako, lurralde-eremua zehaztuko da.

c) Ondorioak

Alarma-egoeran **ez dira eskubideak eteten**. Baina, hartzen diren neurriak direla eta, **eskubide batzuk mugatzen** dira. Herri-administrazioaren langileak agintzaritza bakarraren zuzendaritzapean jartzea; Gobernuaren zein autonomia-erkidegoko presidentearen esku.

Neurri hauek har daitezke:

- Pertsona eta ibilgailuen joan-etorria edo egonaldia mugatu ordu eta leku jakin batzuetan, edota pertsonak lan batzuk egitera behartu
- Ondasun batzuk aldi baterako bahitu
- Gizakiak laguntza batzuk eskaintzera behartu
- Lekuak (lantokiak, tailerrak, etab.) aldi baterako hartu, bizileku pribatuak salbu
- Zerbitzuen erabilera edo premia gorriko artikuluen kontsumoa mugatu
- Produktuen hornidurarik eza saihesteko neurriak hartu
- Enpresetan edo zerbitzuetan esku hartu, bertako langileak mobilizatuz, funtsezko herri-zerbitzuak eta premia gorriko produktuen hornidura bermatzeko (12.2 art.).

Osasun-krisialdian edo ingurumena babesteko kasuetan, beste hainbat neurri ere jar daitezke martxan.

III Salbuespen-egoera

a) Baldintzak

4/1981 LOaren 13. artikuluan zehazten da salbuespen-egoera aldarrikatzeko nahitaezkoa dela **herri-ordenaren aztoramen larria** egotea eta aldi berean, **ohiko ahalmenak erabiliz ordena hori berrezartzea ezinezkoa izatea**. Herri ordena; hiritarren eskubideen eta askatasunen jardura libre edota erakunde demokratikoen eta funtsezko herri-zerbitzuen ohiko funtzionamendua.

b) Jardunbidea

EKren 116.3 artikuluan hau ezartzen da:

Salbuespen-egoera **Gobernuak adieraziko du Ministroen Kontseiluan onarturiko dekretuaren bitartez**, Diputatuen Kongresuaren aurreko baimenarekin. Salbuespen-egoeraren baimenak eta jakinarazteak zehazki adierazi beharko ditu haren **ondorioak, lurralde-eremua, eta iraupena**; iraupena ezin da **hogei eta hamar egun** baino luzeago izan, baina, baldintza berdinetan, beste hainbeste luza daiteke.

c) Ondorioak

EKren 55.1 artikuluan eta 4/1981 LOaren arabera, hauek dira salbuespen-egoeran eten daitezken eskubideak:

- 17. artikuluko **askatasun eta segurtasun pertsonalaren bermeak** (Adi; epaileari atxilotetaren eta haren egoeraren berri eman arren 10 egun arte luzatu ahal da atxilotze epea)
- 18. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan **bizilekuaren bortxaezintasuna** eta **komunikazioen isilekotasuna** onartzen dira, epailearen baimenik gabe egin daiteke baina hari horren berri eman behar zaio berehala.
- 19. artikuluko **egoitza-askatasuna** eta **kanpoko eta barneko joan-etorrietarako askatasunak** murriz daitezke
- 20. artikuluko **adierazpen- eta informazio-askatasunak** eten daitezke
- 21. artikuluan onartzen diren **bilera- eta manifestazio-eskubideen** etena bidezkoa da, baina alderdi politiko, sindikatu eta enpresaburuen elkarteen barne-bilerak bermatzen dira.
- 28. eta 37.2 artikuluetan onartzen diren **greba-eskubide eta gatazka kolektiborako eskubidea** debeka daitezke
- Espainian dauden **atzerritarrak leku jakin batzuetan egoten behartu**, edo **egoitza- eta lan-baimenak berritzeko baldintza** bereziak jarri
- Gobernuari aukera eman **neurri bereziak har ditzan ondasun eta portaera batzuei** buruz: arma, munizio eta lehergailuen konfiskazioa etabar

- **Alarma-egoeran hartutako neurriak**

IV Setio-egoera

a) Baldintzak

4/1981 LOan xedatzen da setio-egoera aldarrikatzeko, **Espainiaren subiranotasunaren edo independentziaren kontra, lurralde-osotasunaren edo konstituzio-antolamenduaren kontra altxamendua** egon behar dela edo sortzeko arriskua eta hori **konpontzeko beste biderik ez dagoenean**. Setio-egoera aldarrikatzeko ez da beharrezkoa gerra baten murgilduta egotea, nahiz eta oso antzeko egoera bat izan.

b) Jardunbidea

EKren 116. 4 artikuluan hau adierazten da, **Diputatuen Kongresuaren erabateko gehiengoak** adieraziko duela, **Gobernuaren proposamenez. Lurralde- eremua, iraupena eta baldintzak zehaztu** behar ditu eta epea pasatu gabe gauzak konpontzen badira setio-egoera altxa dezake.

c) Ondorioak

- **Oinarrizko eskubideei buruz har daitezken neurriak alarma- eta salbuespen-egoerean.**
- EKren 17.3 artikuluan agertzen den **atxilotuen bermeen etena**: atxilotzeko arrazoiaren berri ematea eta abokatuaren laguntza izatea, Poliziaren eta epaileen aurreko eginbideak betetzen diren bitartean.
- **Herri-aginteen militarizazioa**; hau da, herri-aginteen jardura diziplina militarren pean jartzen da, Gobernuaren zuzendaritzapean. Adibidez, bandoaren erabilera, arauak egiteko teknika gisa edo zenbait delitu Kode Penalaren aburuz epaitzea.

V Gizabanakoen eskubideen etena: EKren 55.2 artikulua

Gaur egun, **estatuek terrorismoari egin behar diote aurre**, terrorista gizartearen izua bilatzen duen taldea eta, aldi berean, gizarte demokratikoari bere osotasunean erasotzen duena da. Europar Batasuneko Funtzionamenduaren Tratatuan terrorismoaren kontra jardutea arautzen du baita biktimei babes osoa ematea. Espainiar estatuan **terrorismoaren aurkako legedia sortu** zen, Lege Organiko bidez Auziperatze Kriminaleko Legea zein Kode Penala aldatu ziren. Nabarmena da 2/2015 LOa terrorismo delituen esparruan zigorrak gogortzen dituela.

Konstituzioaren 55.2. artikulua baimentzen du horrelako kasuetan baimentzen du **atxiloketaren gehienezko epea bost egunetara luzatzea, bizilekuaren bortxaketa eta komunikazioen isilekotasuna**. Artikuluak zehazten duena ez da derrigorrez bete behare eta gainera, justifikaziorik gabeko edo neurritz kanpoko erabilerak zigor-erantzukizuna sortuko duela.

KAk adierazi zuen **ekintza terroristak aurrera eramaten dituen talde armatuko kideei bakarrik aplikatu** ahal zaiela 55.2.artikulua, bakarrik gizartean terrorea bilatzen edo zuzenbide-estatuaren konstituzio-ordena demokratikoa aldatu nahi ez duetenei

Gaur egun indarrean dagoen legediari men egitean sortzen diren ondorioak:

- **Atxiloketaren epea bost egunera arte luzatu** daiteke isolamendu egoeran, baina lehenengo 48 orduetan epailearen baimena lortu behar da.
- Abokatuaren laguntza izateko eskubidea **ofizioko abokatuak** gauzatzen du, ez da onartzen abokatuaren izendapen askea
- "**Auzipetze-autoa**" irmoa denean, herri-karguen jardunbidearen etena erabakitzen da; Erabakia irmoa ez denean eta Ministerio Fiskalak errekurritzen duenean, presoak kartzeletatik ateratzeko agindua eten egiten da hilabetez.
- Polizia **bizilekuan bere kabuz sartzeko aukera eta komunikazioen miaketa** gauzatzeko ahalmena dauka. Baina, berehala eman behar zaio berri epaileari, eta hark hirurogeita hamabi orduko epean, arrazoituriko erabaki baten bitartez, ontzat hartuko du edo bertan behera uzteko agindua emango du.